






PROGRAMAZIO 2004
ARTISTIKOA

GuggenheimBILBAO

BILDUMA IRAUNKORRA



FITXA TEKNIKOA



Izenburua: **Miquel Navarro: Harresi hiria**
Datak: 2004ko urtarrila-maiatza
Komisarioa: Petra Joos
Aretoa: 103A

AURKEZPENAREN EDUKIA

Miquel Navarro (Mislata, Valentzia, 1945) gaur egungo irudi berezienetakoen artean kokatu da nazioartean. *Harresi hiria* (2000-01), duela gutxi Guggenheim Bilbao Museoren Berezko Bildumarako eskuratua eta oraingo honetan lehen aldiz aurkeztuko dena, eskultore honen obra adierazgarrienetako bat da, hirurogeiko hamarkadaren erdialdera pinturan eta marrazkian jardunez bere ibilbide artistikoari hasiera eman zion artistarena, alegia. 1973an bere lehenengo hirietako bat egin zuen, material anitzenez baliatuz eta arkitekturak eraikiz eta aldaraziz egiten dituen horietakoa.

Miquel Navarroren hiriek ideiak alderatzeko espazioak sortzen dituzte. Bere ibilbide artistikoan, eskultorea espazioari, lekuen eraikuntzari eta gorputza berari buruz dugun nozioaren inguruko azterketa bat proposatzen aritu da. *Harresi hiria* berun, zink eta aluminiozko pieza txikiez osatuta dago, eta horizontean zabaltzen da espazioa hartzen duten egitura bertikalek bakarrik etendako ikuspegi batean. Bertan, hiri ehunean inspiratutako bere gainerako paisaia eskultorikoetan bezalaxe, artistak gogoeta egitera gonbidatzen gaitu gai hauei buruz: giza eskala; errealitatea denaren eta adimenak sortutakoaren, gizarte industrialaren ordenaren eta desordenaren arteko desberdintasuna eta bat etortzea; eta arkitekturaren eta eskulturaren arteko dialektika. Artistak dienez "nire eskultura eskematikoek ere, figuratiboak izateari utzi gabe, gizakiaren arrastoari jarraitzea ahalbidetzen dute".

BILDUMA IRAUNKORRA





FITXA TEKNIKOA

Izenburua: ***Pop artea***
Datak: 2004ko otsaila–2005eko udaberria
Komisarioa: Tracey R. Bashkoff
Aretoa: 104

AURKEZPENAREN EDUKIA

Hirurogeiko hamarkadaren hasieran, *pop* artea Ameriketako Estatu Batuetan eta Ingalaterran sortzen hasi zen mugimendu berezi gisa. Espresionismo abstraktuaren pintzelkada emotiboaren alternatiba “hotzagoa” eskainiz, *pop* artistek nonahi ikus zitekeen publizitatearen ikonografia eta diseinu grafikoaren baliabideak erabili zituzten goi-mailako artearen eta herri kulturaren arteko mugari desafio egitearren. Guggenheim Museoen bilduma ikusgai jartzen duten erakusketa jarraituen sailaren parte gisa, *Pop artea* erakusketak mugimendu horren oinarriak aztertzen ditu hainbat artista adierazgarriren lanak ikusgai jarritz, besteren artean Andy Warhol, Jim Dine, Roy Lichtenstein, Robert Rauschenberg, Claes Oldenburg eta Coosje van Bruggenenak. James Rosenquisti eskainitako atzera begirako erakusketaren omenaldi historiko gisa, erakusketak ibilbide bat egingo du *pop* mugimenduaren funtsezko gaiak izan duten eboluzioan zehar.

BILDUMA IRAUNKORRA



FITXA TEKNIKOA

Izenburua: ***Bill Viola: denborazkotasuna eta transzendentzia***
Komisarioak: John Handhart eta Maria-Christina Villaseñor
Datak: 2004ko ekaina–2005eko urtarrila
Aretoak: 103A eta 105

AURKEZPENAREN EDUKIA



Guggenheim Bilbao Museoak, 2004ko ekainetik 2005eko urtarrilera bitartean, gaur egungo panorama artistikoan diren irudi gailenetako baten azkenaldiko lanetako batzuk aurkeztuko ditu, Bill Violarenak, alegia. Violak, bideoa erabiltzen aitzindarietako bat izanik, hirurogeita hamarreko hamarkadatik dihardu baliabide horretan lanean, mugimenduzko irudia sorkuntza monokanal, instalazio eta bestelako obra batzuen bidez aztertuz, artearen historiarekin, espiritualtasunarekin eta kontzeptuarekin eta pertzepzioarekin zerikusia duten beste gai batzuekin duen lotura estua islatuz. *Bill Viola: denborazkotasuna eta transzendentzia* erakusketa artista honen lanaren gaikako azterketa bat da, eta duela gutxi egin dituen instalazio adierazgarrienak biltzen ditu: *Egunero aurrera eginez* (2002) eta *Bost aingeru milurtekorako* (2001).

Solomon R. Guggenheim Museum-ek eta Deutsche Guggenheim Berlin-ek batera egindako eskariz sortua, *Egunero aurrera eginez* bost zatitan banatutako zikloa da, proiektatutako irudi digitalena. Lan honetan, Violak fresko pintura hartu du erreferentziazat, jaiotzaren, heriotzaren eta berriz jaiotzearen zikloak aztertzen dituen ahalmen handiko instalazioa sortzeko. Pieza bakoitzak —instalatzen den espazioko paretaren gaineko proiektzio bat— 35 minutu irauten du gutxi gorabehera eta goi-mailako definiziozko bideoaren teknologia punta-puntakoena erabiliz grabatuta dago. Obra esperientzia arkitektoniko gisa ulertzen da, eta osatzen duten irudien bost sekuentziak aldi berean proiektatzen dira bertan, areto bakar batean. Instalazioak hartzen duen espaziora heltzeko, bisitariak lehenengo irudiaren argian sartzen dira literalki. Barruan daudela, irudi eta soinuen unibertsoaren erdian ezartzen dira, inguratzen dituzten pareta guztietan proiektzioak eskaintzen baitzaizkie.

Bost aingeru milurtekorako ere bost proiektzioez osatutako instalazioa da. Obra honetan, artistak gogoeta anbiguoagoa, baina txundigarria, eskaintzen digu elkarren artean lotura duten gaiei buruz, eta uretik atera eta bertan sartzen diren pertsonaien ikonografia baten bitartez, oroimen eta zentzumen esperientzia garbia sorraraziz.

Aurrekoekin lotura duten bi obrak, Bilduma Iraunkorrekoak —*Mezularia* eta *Gurutzatzea*—osaten dute aurkezpen hau, Bill Violaren obra eta bere lanean behin eta berriro agertzen diren denborazkotasunaren eta transzendentziaren gaiak lantzen dituen modua ulertzeko obra sorta paregabea eskainiz.

BILDUMA IRAUNKORRA



FITXA TEKNIKOA

Izenburua: **Gerhard Richter. Lawrence Weiner. Rachel Whiteread**
Komisarioa: Tracey R. Bashkoff
Datak: 2004ko ekaina–iraila
Aretoak: 301, 302, 303 eta 304

AURKEZPENAREN EDUKIA



2004ko udan, Museoak nazioartean ospea zabaldua duten hiru artista garaikideren lana —Gerhard Richter, Lawrence Weiner eta Rachel Whitereadena— aurkeztuko du hirugarren solairuko aretoetako batzuetan, Deutsche Guggenheim Berlin-en eskariz obrak sortzen aritu diren artistak izanik.

Azkeneko hamarkadetan, Gerhard Richter (Dresde, 1932) gure garaian eragin handienetakoa izan duten artistetako bat izatearen fama lortu du, estilo bakar batera mugatu gabe. Bere produkzioa anitza da benetan, eta eskulturak eta pinturak barne hartzen ditu, paisaietatik hasi eta gris monokromoetaraino, abstrakzio koloretsuak tartean direla. *Zortzi gris*, 2002koa, beira esmaltatuzko zortzi panelek osatzen dute, artistak hirurogeiko hamarkadaren erditik ikertu dituen gaiak aditzera ematen dizkigutenek. Neurri batean pintura, neurri batean eskultura eta neurri batean arkitektura, tamaina izugarria duten panel horiek bere inguruan gertatzen denaren isla dira, beti aldatzen ari den irudi baten itzal antzeko bat. Ikuslea obraren planoan sartu eta bertatik irten ahala, aleatoriotasunari dagokion beste osagai bat gehiago gehitzen duten eszenak birsortzen ditu ausaz.

Lawrence Weiner (Bronx, New York, 1942) arte kontzeptualaren eskultore aitzindarietako bat da, hizkuntza izanik bere adierazpide nagusia. 1968az geroztik, berez artelana eraikitzea bere existentziarako ezinbestekoa ez dela ondorioz atera zuen momentutik alegia, Weinerrek ehunka obra sortu ditu hizkuntza konstante gisa hartuta. Deutsche Guggenheim Berlin-en eskariz *NACH ALLES / AFTER ALL* sortu zuen. Instalazio elebiduna da, espazioan batera egonez eta elkar eraginez gauzen eta materialen errealitate anitzei buruzko testu desberdinez osatua. Obrak Alexander von Humboldt (1769–1859) esploratzaile eta zientzialariaren arrastoari jarraitzen dio, hark erabilitako sailkapen sistema zehatza inspirazio-iturritzat hartu baitzuen artistak inguratzen duten munduko materialak eta existitzen diren ordena aztertzeke.

Rachel Whiteread (Londres, 1963) obra eskultoriko berezia sortu du, eguneroko objektuak eta espazio arkitektonikoak artelan poetiko eta pentsamenduaren eragile izateko. Laurogeiko hamarkadaren bukaeran, Whiteread objektuen eskulturak sortzen hasi zen, esate baterako ohe, konketa, bainuontzi eta armairuenak, eta eskultura horien bidez etxeko bizitzaren alderdi pribatua agerian uzteaz gain giza gorputzari buruz gogoeta egiten zuen sinbolo gisa. Erakusketa honek eskala handiko bi pieza jarriko ditu ikusgai: *Titulurik gabea (Apartamentua)* eta *Titulurik gabea (Sotoa)*, biak 2001ekoak, Londresko eraikin batean oinarrituta sortutakoak, urteak igaro ahala sinagoga, ehundegi eta, ondoren, artistaren egoitza eta estudio izandakoan, alegia. Bi obrek gerra ondoko arkitektura gehienak duen izaera generikoa hezurramitzen dute eta Europako historiaren aldi hori markatu duten kezka estetikoak eta soziologikoak aditzera ematen dizkigute.

BILDUMA IRAUNKORRA



FITXA TEKNIKOA

Izenburua: **Artea 1945az geroztik: bilakaera, aniztasuna eta elkarrizketa**
Komisarioak: Tracey R. Bashkoff eta Petra Joos
Datak: 2004ko azaroa–2005eko apirila
Aretoak: bigarren solairua

AURKEZPENAREN EDUKIA

Artea 1945az geroztik: bilakaera, aniztasuna eta elkarrizketa erakusketarekin, Guggenheim Bilbao Museoak udazkenean ibilbide zabala eskainiko digu 1945etik gaurdaino arte garaikidearen mugimendu, korrante eta joera garrantzitsuenetako batzuen artista gailenetakoen obran zehar. Hala, Carl Andre, Francesco Clemente, Anselm Kiefer, Willem de Kooning, Sol LeWitt, Brice Marden, Agnes Martin, Robert Mangold, Robert Motherwell, Clyfford Still, Antoni Tàpies eta Eduardo Chillidaren lanak izango dira ikusgai, besteren artean, kasu askotan aldi berean sortutako eboluzioa, aniztasuna eta elkarrizketa agerian utziz. Aurkezpena bost sailetan antolatuta da.

205, 206 eta 207 aretoak

Espresionismo abstraktua, edo ekintza pintura, gerra ondoren nagusitu zen lehenengo mugimendu artistikoa izan zen Ameriketako Estatu Batuetan. Joera honi jarraitu zioten pintore nagusiak forma eta emozioa bat egiten saiatu ziren, pinturaren edukiaren bitartez artistaren nortasuna aditzera emanez. Artista horietako batzuek, esate baterako Willem de Kooning edo Robert Motherwellek, trazu bortitzaz eta keinuzkoaz pintatzen zuten. Pintzel klasikoaz gain, pintura aplikatzeko prozedura desberdinak eta berritzaileak erabiltzen zituzten, horrela gainazal pintatuaren garrantzia adieraziz. Metodo horien bidez, mihisearen gainean nahiko desberdin banatutako forma itxuragabetuak sortzea lortzen zuten, amaitu gabeko obraren itxura emanez. Beste artista batzuek, adibidez Mark Rothko eta Clyfford Stillek, giza aspirazioen izaera unibertsala azpimarratu zuten kolore plano handien bitartez, eta horren eraginez kritikari batzuek “mistiko” adjektiboa erabili zuten joera hori deskribatzeko garaian.

Espresionismo abstraktua AEBko panorama artistikoan nabarmendu zen bitartean, Europan —mendearen lehenengo erdiko mugimenduen eszenatoki nagusia— joera plastiko berri bat sortu zen filosofia existentzialisten eraginpean, arte informala (formarik gabea), alegia. Besteren artean, Jean Dubuffet, Antonio Saura eta Antoni Tàpiesek aurkeztutako joera horren berezitasunak hauek ziren: naturaltasuna obra egiteko garaian eta artista keinuaren bertuteen menpean egotea. Erabilitako materialaren ezaugarri fisikoek garrantzi handia hartu zuten artista hauentzako nahiz Edurado Chillida eskultorearentzako, bere lanean muga, hutsunea, espazioa eta eskala bezalako kontzeptuak ikertu zituena

202 aretoa

Berrogeita hamarreko hamarkadan espresionismo abstraktua eta dagokion keinuzko izaera Ameriketako Estatu Batuetan joera nagusia zen bitartean, hirurogeiko hamarkadan justu kontrako mugimendua sortu zen: arte minimalista. Joera orokorra konposizio geometrikoa izanik ere, obra minimalistak oso bestelakoak izan daitezke elkarren artean, Agnes Martinen mihise ia monokromatikoetako edertasunaren dei horretatik hasi eta Robert Mangolden obra geometriko zorrotzetaraino, eta Brice Mardenen belus antzeko ehunduretaraino. Carl Andre, bere aldetik, eskultura minimalistaren funtsa adierazten du, alegia idulkia ezeztatzea, material industrialak erabiltzea, gainazal leunak eta doitasun mekaniko handiko loturak dituztenak, akabera inpersonala sortzea eta, ezereen gainetik, formaren sinpletasuna lortzea.

203 aretoa

Francesco Clementeren (Napoli, 1952) lana laurogeiko hamarkadaren hasierako neoespresionismoan sustraituta dago, Italian Transabagoardia izenez ezagutzen den joeran. Clementek pinturaren berariazko nozioak eta teknika tradizionalak berreskuratzen ditu, esate baterako freskoa, akuarela, marrazkia edo olio-pintura, eta bere obretan lehenaldiko elementuak barne hartzen ditu hertsiki lineala den edozein garapeni desafio eginez. Motibo horiek obra batetik bestera, edo estilo batetik bestera igarotzeko tresna gisa erabiltzen ditu. Oinarrizko indarren aipamenak (lurra, ura, sua eta aire) Indiako kulturaren, erlijioaren historiaren edo astrologiaren sinbolismoaren ondoan ezarrita agertzen dira. Premisa horiek batik bat *La stanza della madre* obran geratzen dira agerian, Italiako Erdi Aroko eta Errenazimenduko jauregietakako dekoratuak gogora ekartzen dizkiguten mural handiez osatutakoan, areto honetarako propio sortua izanik.

209 aretoa

Anselm Kiefferren (Donaueschingen, 1945) lana, Guggenheim Bilbao Museoaren Berezko Bilduman zabal ordezkaturia, neoespresionismo alemanaren barruan kokatu da, hirurogeita hamarreko hamarkadaren bukaeran sortutako joera, keinuzko pintura eta eduki alegorikoak berreskuratzen dituena. Erakusketa honek aurkeztuko duen obra multzoak, sarritan formatu handikoak eta ia monokromatikoak den paletaz eginak izanik, artistak azken hamabost urteotan egin duen ibilbidearen ikuspegi osatua eskainiko digu eta teknika ugari barne hartuko ditu —pintura, eskultura eta argazkia— baita askotariko materialak ere —berunezko xaflak, lastoa, eskaiola, errautsa eta lurra—.

208 aretoa

Sol LeWitt (Hartford, Connecticut, 1928) artista iparramerikarra paretatan zuzenean esku hartuz hasi zen hirurogeiko hamarkadaren bukaeran, eta eskuartze horien bidez forma sinpleak eta logikoak bilatzean agerian uzten du obra sorrarazten duen ideia, obraren egikaritzea eta eraikuntza bigarren mailara baztertuz. *Horma-irudia 831. zk. (Forma geometrikoak)* pieza, LeWittek 1997an areto honetarako propio sortua, Museoaren espazio zehatzetarako sortutako obretako bat da, Jenny Holzer, Francesco Clemente edo Richard Serrak egindakoekin batera. Elkarren artean artearen eta erakunde artistikoaren beraren arteko elkarrizketa bultzatzen dute, tradizioz dagokien neurritasun eta neutraltasun baldintza galtzen duten espazio arkitektonikoak sendotuz.

ALDI BATERAKO ERAKUSKETA



FITXA TEKNIKOA

- Izenburua: ***James Rosenquist: atzera begirakoa***
Komisarioak: Walter Hopps eta Sarah Bancroft
Egoitzak: Menil Collection eta Houstongo Arte Eder Museoa; Solomon R. Guggenheim Museum, New York; Guggenheim Bilbao Museoa
Datak: 2004ko maiatza-urria
Aretoak: Bigarren solairua



ERAKUSKETAREN EDUKIA

2004ko maiatza eta urria bitartean, Guggenheim Bilbao Museoa *James Rosenquist: atzera begirakoa* aurkeztuko du, 30 urte baino gehiago igaro ondoren artista honek mota guztietako teknikak erabiliz egindako lana sakonetik aztertzen duen lehenengo erakusketa. Erakusketak 150 bat obra biltzen ditu — pinturak, eskulturak, marrazkiak, lan grafikoa eta *collageak*— Ameriketako Estatu Batuetako eta Europako museo eta bilduma pribatuetakoak, baita artistaren beraren bildumakoak ere.

Berrogeita hamarreko hamarkadaren bukaeratik, James Rosenquist lan zoragarria eta paregabe sortzen aritu da. Amerikako *pop* artearen aitzindarietako bat izan zen hirurogeiko hamarkadan, bere garaikideak diren Roy Lichtenstein, Claes Oldenburg eta Andy Warholekin batera. Eguneroko bizitza eta garaiko testuinguru politikoa aditzera emateko publizitatearen eta hedabideen ikonografian inspiratuta, bere lana ikuspegi orokorretik begiratuta eta begirada bereziaz, herri kulturari lotzen zaio. Publizitateko errotuluen pintore gisa oso gazte zela hasi zenetik pintura abstraktuaren teknikez baliatzen zen azkenaldiko garairaino, Rosenquisten lanak agerian uzten du ehundura, kolorea, lerroa eta forma interesatzen zaizkiola eta menderatzen dituela, ikuslea erakarriz eta artisten belaunaldi berrietan eragina izanik.

James Rosenquist: atzera begirakoa erakusketak artistak egindako ibilbidearen lau hamarkada baino gehiago biltzen ditu. Bere lehenengo *pop* obrak dagozkien testuinguru historikoan kokatzen ditu, eta aldi berean agerian uzten du XX. mendearen bigarren erdiko eta XXI. mendearen hasierako panorama artistikoan duten garrantzia. Erakusketa Rosenquistek 1955ean New Yorkera iritsi ondoren egin zituen lan abstraktueto batzuekin hasten da. Kontuan izan behar da garai hartan espresionismo abstraktua zela joera artistiko nagusia AEBn. Ondoren, bere estiloak izan duen eboluzioa aztertzen jarraitzen du erakusketak, aurretik errotuluen egile zela agerian uzten duten hirurogeiko hamarkadako pintura deigarriak erakutsiz. Lan horiengatik egin zen ospetsu publikoaren artean eta *pop* artearekin lotu zuten; gainera, erakusketak bere ondorengo eboluzioaren errepaso egiten du gaurdaino, proportzio monumentalak dituzten mural batzuk eta paper gaineko obrak barne hartuz, bere pinturarekin zerikusi handia duten lanak alegia, baita bere koadroak prestatzeko egindako *collage* ugari ere. *James Rosenquist: atzera begirakoa* erakusketak orain arte erakusketa batean bildutako artistaren obra sorta zabalena barne hartzen du, bere sorkuntza prozesua sakonetik aztertuz eta artistaren kezka artistikoak eta ideologikoak ulertzeko aukera emango digun ikuspegi orokorra eskainiz.

ALDI BATERAKO ERAKUSKETA



FITXA TEKNIKOA

Izenburua: **Mark Rothko**
Komisarioak: Oliver Wick eta Petra Joos
Egoitza: Guggenheim Bilbao Museoa
Datak: 2004ko ekaina–azaroa
Aretoak: 305, 306, 307

ERAKUSKETAREN EDUKIA



2004ko ekaina eta azaroa bitartean, Guggenheim Bilbao Museoa *Mark Rothko* aurkeztuko du, “isiltasunaren pintore” honen obran barrena ibilbide bat egiten duen erakusketa monografikoa. Berezkoak dituen kolore plano handiek eta bere pinturaren bidez aditzera emandako giza aspirazio unibertsalen izaerak eraginda bere lana “mistikotzat” hartu izan dute zenbait kritikarik.

Mark Rothkovich, bere jatorrizko izena eta abizena izanik, Dinsken (Errusia) jaio zen 1903an, baina hamar urte besterik ez zituela Ameriketako Estatu Batuetara emigratu zuen familiarekin batera. 1921ean Yale Unibertsitatean sartu zen ingeniari edo abokatu izateko asmotan, baina bi urte beranduago unibertsitatea utzi eta New Yorkera joan zen denboraldi labur batez Art Students League-n ikasteko. Han, Max Weberrekin batera ikasi zuen, eta hura izan zen kubismoan sartu zuena eta Paul Cézanneren lana ezagutzera eman ziona.

Rothko gerra ondoko artearen aitzindari handietako bat izan zen eta, zehazki, Ameriketako Estatu Batuetako espresionismo abstraktuaren irudi gailenetako bat, Barnett Newman eta Jakson Pollockekin batera. Bere obrak enigmatikoak, hipnotizatzaileak eta erakargarriak dira, eta pinturak “ideia konplexu baten adierazpen sinplea” izan behar duela defendatzen zuen bere idealaren isla dira.

Mark Rothko erakusketak hirugarren solairuko hiru areto klasikoak hartuko ditu, eta Guggenheim Bilbao Museoa antolatu du Fondation Beyeler-en eta artistaren oinordekoen lankidetzarekin. Mark Rothkoren sorkuntzaren ibilbidean izan diren fase desberdinetako pintura sorta handi bat biltzen duen erakusketa hau hiru aretotan edo “meditaziorako kaperetan” —Rothkok berak barneratu zuen terminoaren arabera— banatuta dago, eta berrogeiko hamarkadako obrak aurkeztuko ditu, artistaren lanean espresionismoak eta surrealismoak izan zuten eragina agerian uzteko; baita berrogeita hamarreko pinturak ere bere estilo heldua aditzera emateko, ertz zehaztugabeak dituzten kolorezko laukizuzen handiak izanik estilo horren bereizgarri, bere maisulanetako bat tartean dela, *Titulurik gabea* (1952) alegia, Guggenheim Bilbao Museoa Berezko Bildumarena; eta azkenik, hirurogeiko hamarkadaren bukaerako lan batzuk izango dira ikusgai, kolore biziko plano laukizuzen handietan gris eta beltzerako joera antzemanaz, 1970ean hil zen artistaren aldarrearen isla, alegia.

ALDI BATERAKO ERAKUSKETA



FITXA TEKNIKOA



Izenburua: ***Picasso ezkutua***
Komisarioak: William Shank, Carmen Giménez eta Petra Joos
Egoitza: Guggenheim Bilbao Museoa
Datak: 2004ko iraila-azaroa
Aretoak: 103B

ERAKUSKETAREN EDUKIA

2004ko irailaren 13tik 17ra bitartean Bizkaiko hiriburuan izango den Obra Historikoen eta Artistikoen Kontserbaziorako Nazioarteko Institutuaren XX. kongresuarekin bat etorritik, Guggenheim Bilbao Museoa, jardunaldi horren antolamenduan lankide izanik, erakusketa bat aurkeztuko du, 1900ean Pablo Picassok egindako bi lanen inguruko ikerlan baten emaitza.

San Franciscoko Arte Modernoaren Museoak duen Picassoren *Rue de Montmartre* obrari egin zaion errestituzioan, Jonathan Ashley-Smith ikerlariak erradiografi teknikak erabiliz haxe aurkitu du *Rue de Montmartre*ren azpian, garai hartako Parisko gaueko klub baten eszena bat, Guggenheim Museoen Bilduma Iraunkorraren *Le Moulin de la Galette* koadroarekin antzekotasun harrigarria duena. Erakusketa honek aztergai izan diren bi obrak erakutsiko ditu, baita egindako analisiei buruzko dokumentazioa eta erreferentziako dokumentuak ere —marrazkiak, argazkiak eta eskutitzak—bi pinturak Picassok Parisen bizi zen lehenengo urtean egindako artelanen testuinguruan kokatzen dituztenak. Aurkezpena ikuspegi didaktiko batean oinarrituta egingo da funtsean, eta egindako ikerlanaren emaitza adituekin partekatzeaz gain museoaren kontserbazio sailtan egiten den lana, ezezaguna askotan, ezagutzera emateko aukera eskaini nahi dio publikoari.

ALDI BATERAKO ERAKUSKETA



FITXA TEKNIKOA

Izenburua: **Jorge Oteiza**
Komisarioa: Margit Rowell
Egoitza: Guggenheim Bilbao Museoa
Datak: 2004ko urria–2005eko urtarrila
Aretoak: 301, 302, 303 eta 304

ERAKUSKETAREN EDUKIA



2004ko udazkenean, Guggenheim Bilbao Museoa azken hamabost urteotan Jorge Oteizari (Orio 1908–Donostia 2003) eskainitako atzera begirako erakusketa handiena aurkeztuko du. 1957an Sao Pauloko Bienalean lehenengo eskultura saria irabazi arren —eremu honetan den nazioarteko sari gailenena— eta Richard Serraren hitzetan XX. mendearen lehenengo Erdiko Eskultore Garrantzitsuena izan arren, bere lana, harrigarria badirudi ere, oso gutxitan jarri izan da ikusgai. Hori, neurri batean, zirkunstantzia historikoengatik izan daiteke, baina baita Oteizak berak bere lana nazioartean sustatzeko interes handirik erakutsi ez zuelako ere.

1949an aurkeztu zen bere lehenengo erakusketa eta berrogeita hamarreko hamarkadan gero eta ospe handiagoa lortu zuen nazioartean. 1959an, Sao Pauloko Bienalean merezitako eskultura saria lortu ondoren bi urte bakarrik igaro zirenean, Oteizak eskultura alde batera uztea erabaki zuen Euskal Herriko arkeologiaren eta hizkuntzaren ikerlanean baita kausa politikoan eta sozialean murgiltzeko, gai horiei buruz lan ugari argitaratuz. 1972an eskultura lantzeari ekin zion berriro, aurreko proiektu eta ideietan inspiratutako obra berriak egiteko. Laurogeiko hamarkadatik aurrera, museoak interes handiagoa erakusten hasi ziren bere obrarekiko, eta hala hasi ziren artistaren piezak eskuratzen. 1988an Caixa de Pensiones-ek atzera begirako erakusketa handi bat eskaini zion Madrilan, lehen aldiz bere ahalegin artistikoak izan duen hedadura osoa agerian utziz; urte hartan bertan Susana Solanorekin batera egon zen Veneziako Bienalaren Espainiako Pabilioian, eta hogeita bost urtetan lehen aldiz bere eskultura *Qu'est-ce que la sculpture moderne?* nazioarteko erakusketan barne hartu zuten, Parisko Centre Georges Pompidou-n.

Oteizaren obra erabat pertsonala eta berezia da, definitzen zaila. Atzera begira minimalismoarekin lotu ahal izango genitu, baina minimalismo terminoa hainbat artista amerikarren lanak izendatzeko asmatu bazen (Donald Judd, Robert Morris, Richard Serra), Jorge Oteizaren berrogeita hamarreko hamarkadako eskulturak horien guztien aitzindari eta iragarle izan ziren. Beraz, Oteiza oraindik formulatu ez zen kategoria baten aitzindari izan zen nolabait ere.

Artistak berak sarritan adierazi zuen hogeiko hamarkadako Errusiako abangoardiaren miresle handia zela eta, bereziki, eskultore konstruktibistena eta Kazimir Malevich pintore suprematistarena. Hori adierazi ondoren, bere asmoak eta eskulturak kontuan hartuta, Oteizaren lana “konstruktibismo mistiko” gisa har dezakegu.

ALDI BATERAKO ERAKUSKETA



FITXA TEKNIKOA

- Izenburua: ***Migel Anjel eta bere garaia***
Komisarioa: Dr. Achim Gnann
Egoitzak: Peggy Guggenheim Collection, Venezia; The Graphische Sammlung Albertina, Viena; Guggenheim Bilbao Museoa
Datak: 2004ko azaroa–2005eko martxo
Aretoak: 305, 306, 307

ERAKUSKETAREN EDUKIA

2004ko azaroan, *Migel Anjel eta bere garaia* izenburupean, Guggenheim Bilbao Museoa Italiako Errenazimenduak mendebaldeko kulturaren izan zuten erabateko garrantzia agerian utzi nahi duen erakusketa aurkeztuko du eta, bereziki, marrazkiak adierazpide artistiko gisa ez ezik garaiko artistentzako azterketarako tresna gisa hartu zuten garrantzia.

Erakusketak eskainiko digun testuinguruan Migel Anjel artistaren eta haren garaikide italiarren lorpenak ikuspegi berritzaile batez aztertzen dituzten 70 bat marrazki eta grabatu ikusi ahal izango ditugu, Florentzia, Erroma eta Veneziako Goi Errenazimenduaren eta manierismoaren adibideak ikusgai jarri, baita Parma, Urbino, Mantua eta Veronakoak ere. Gainera, erakusketak Leonardo da Vincik hainbat artista italiarren izan zuten eragina aditzera emango digu, esate baterako Bernardino Luinirengan eta, Migel Anjelekin batera, Florentziako beste batzuegan, adibidez Fra Bartolomeo, Andrea del Sarto eta Baccio Bandinellirengan. Aurkezpen honek Rafaelen eta haren dizipulu izandako Giulio Romano, Perino del Vaga eta Polidoro da Caravaggioren artea ere aztertzen du, 1527an Erroman izandako harrapaketa ondoen maisuaren estiloa beste eskualde batzuetara eraman zutenena, alegia.

Migel Anjel eta bere garaia erakusketak, Museoaren hirugarren solairuko hiru areto klasikoak hartuko dituenak, Rafael, Migel Anjel eta Leonardok da Vinciren lanak aurkeztuko ditu, baita Rosso Fiorentino, Parmigiannino, Francesco Salviati, Perino del Vaga, Ugo da Carpi, Tintoretto, Pablo Veronés eta Federico Barocciaren artean. Artelanak Vienako Graphische Sammlung Albertina-renak dira, munduan den Maisu Handien marrazkien bilduma pribatu handienaren jabe izanik. Alberto Sachsen-Teschengo artxidukea (1738–1822) eta haren emaztea, M^a Teresa enperatrizaren alaba, buru eta bihotz aritu ziren bilduma hau osatzen, eta gaur egun ia 65.000 marrazki eta milioitik gora grabatu dituen bilduma.

Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa
Komunikazio Arloa
Abandoibarra, 2
48001 Bilbao
Tel: +34 944359008
Fax: +34 944359059
media@guggenheim-bilbao.es